

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Eskoziaren ordua

Bost aste baino ez dira geratzen Eskoziako erreferendumarentzat. Urte eta mendeetan harturiko erabakirik garrantzitsuena izango da eskoziarrentzat, eta, emaitza jakin aurretik ere, badira prozesu horretan guztian garaile argiak nire ustez: Eskoziako zein Ingalaterrako herriak. Txalagarria eta eredugarria da Eskoziako zein Ingalaterrako biztanleek izan duten eta daukaten jarrera erreferendumari begira, normaltasun osoz bizi baitute ariketa demokratiko hau. Oro har bertako instituzioek eta bereziki Eskoziako zein Erresuma Batuko gobernuak izandako jarrerak eta praxiak erabakia normaltasun osoz gauzatzea ahalbideratu dute.

Eskoziako prozesuaren bigarren garaileak estaturik gabeko herriak gara, orokorrean. Eskoziak eta Erresuma Batuak urteetan aldarrikatu duguna posible dela erakutsi digute. Eskoziako erreferendumak irakasgai aparta beharko luke, bai jarrera ez demokratikoa daukaten estatuentzat bai nazioarteko erakundeentzat ere, tartean Europar Batasuna eta Nazio Batuak. Erabakitze eskubidearen gauzatzea, horrelako egoeren aurrean irtenbide demokratikoa izateaz aparte, gatazka politiko eta armatuak ekiditeko eta jada existitzen direnak konpontzeko gailu eraginkorra da.

Badira atera beharreko zenbait ondorio garrantzitsu ere. Herrien erabakitze nahi ezin da geldiarazi. Estatuaren jarrera ez demokratiko ankerrak guztiz normala izan beharko

lukeen prozesu bat zailtasunez bete dezake, bidea gatazka bilakatu, eta, ondorioz, erabakitze eskubidearen gauzatzea atzera dezake, baina, aldiz, herritarren borondatea ezin da betiko gelditu eta herri orori iristen zaio nahi duena izateko erabakitze aukera eta eguna. Bideak badu garrantzia, noski, etorkizuneko herri independente horien arteko harreman oro baldintzatuko baitu nahi ala ez. Erresuma Batua ez da bat-batean %100ean demokratiko bilakatu, bere izaera eta bere jardunaren ondorioak askok pairatu behar dituzte oraindik ere etxean zein kanpoan. Erreferendumaren aldeko Erresuma Batuaren jarrera aldaketak izaera estrategikoa dauka nire ustez. Winston Churchillek adierazi bezala, ez dira harreman estrategikoak existitzen, interes estrategikoak baizik. Eta Erresuma Batuak harturiko erabakia bere interes estrategikoen arabera hartu izan ditu beti. Kasu honetan, nire ustez, bi dira interes nagusi horiek. Le-

hena eta garrantzitsuena, epe ertain zein luzera Eskoziak Erresuma Batuko kide izaten jarraitzeko bide bakarra eskoziarren erabakitze eskubidea errespetatzea dela uste dutela britainiarrek –nik ere arrazoia daukatela uste dut–. Erreferenduma debekatzeak eskoziar independentisten kopurua handituko luke, prozesua “demokrata” vs “ez demokrata” parametroetan banatuko luke, eta, nahiz eta epe laburrera erreferendumaren gauzatzea atzeratu, epe ertain zein luzera indar korrelazioa independentisten alde jarri lezake. Bigarren interes estrategiko nagusia, nire ustez, honakoa da: Erresuma Batuak, Eskoziak gauza bat edo bestea erabaki, harreman komertzial, politiko, militar... onak izan eta ziurtatu nahi ditu etorkizunera begira Eskoziarekin. Independentziarako bide gatazkatsuak epe ertain zein luzera Erresuma Batuak Eskozian duen eragina txikiagotuko luke. Beraz, Erresuma Batuaren ikuspegi eta interesetatik begiratuz agertoki okerrean ere, hau da, Eskoziak indepen-

Eskoziako prozesuak eta bereziki Erresuma Batuaren jarrerak Estatu espainolaren izaera ez demokratikoa inoiz baino ageriago utziko dute. Irabazteko aukera paregabe baten aurrean gaude

dentzia aukeratuko balu, Erresuma Batuak bere interesen arabera agertokirik hoberena ziurtatu nahi du. Lurraldea galdu eta Eskoziarekiko harremana zein eragina galdu beharrean, auzia beste agertoki batera eraman nahi du: emaitza edozein delarik ere, Eskoziarekiko harremana zein eragina irabazi edo ahal den heinean behintzat mantendu.

Eta azkenik, Eskoziar prozesuak eta bereziki Erresuma Batuaren jarrerak Estatu espainolaren izaera ez demokratikoa inoiz baino ageriago utziko dute. Katalunia zein Euskal Herriko prozesuek ezinbestekoa eta garrantzitsuena den ezaugarria betetzen dute: herritarren gehiengoaren babes. Egunez egun, gainera, babes hori handitzen doa, bai erabakitze eskubidearen harira bai gatazkaren konponbide demokratikoaren harira. Irabazteko aukera paregabe baten aurrean gaude, eta, horrela egiteko, guztion lana eta konpromisoa beharrezkoak dira. •